

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 5468

*EBAZPENA, 2023ko azaroaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, txanda irekiko eta barne promozioko irakasle osoen plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egiteko dena (martxoaren 22ko Unibertsitate Sistemaren 2/2023 Lege Organikoaren 71. artikulua).*

Indarrean dagoen arautegiari jarraituz –UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 24ko Erabakia, irakasle eta ikertzaileen 2022rako Lan Eskaintza Publikoa eta barne promozioa onartzen dituen; UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 20ko Erabakia, 2023ko Lan Eskaintza Publikoa eta irakasleen eta ikertzaileen 2023ko barne promozioa onartzen dituen; 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 20. artikulua; 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikulua; eta Hezkuntza Sailaren baimenarekin–, Errektorego honek, esleituta dituen eskumenak baliatuz, erabaki du Ebazpen honen I. eranskinean zehazten diren Irakasle Osoen kategoriako lanpostu hutsak betetzeko lehiaketarako deialdia egitea, jarraian aipatutako oinarrien arabera.

### DEIALDIAREN OINARRIAK

#### 1.– Arau orokorrak.

1.1.– Lehiaketa honetan arau hauek bete beharko dira: 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena; 1312/2007 Errege Dekretua, urriaren 5koa, unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko akreditazio nazionala ezartzen duena; irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko lehiaketaren erregulazioa, Gobernu Kontseiluak 2009ko maiatzaren 28ko bilkuran onartua eta irakasleen errektoreordearen 2009ko irailaren 15eko ebazpenaren bidez argitaratua (2009ko urriaren 9ko EHAA); Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak (2011ko otsailaren 24ko EHAA); deialdi honetako oinarriak; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; aplikagarriak diren arau orokorrak; eta, aurreikusi ez diren alderdietarako, Herri Administrazioan sartzeko araubide orokorra arautzen duten estatuko xedapenak.

1.2.– Jakintza arlo berekoak diren eta ezaugarri berberak dituzten plazak deialdi desberdinetan atera ahal izango dira lehiaketara.

#### 2.– Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.– Hautagaiek, lehiaketa honetan onartuak izateko, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Hamasei urte beteak izatea.

b) Kasuan kasuko irakasleen kategoriako lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.

c) Diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko

ezgaiturik ez egotea. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

d) Ondoren adierazten den zenbatekoa ordaintzea plaza bakoitzerako: 23,49 euro.

Eskubideak ordaintzeko, dagokion diru sarrera edo transferentzia egin beharko da kontu korrante honetara (lehiakidearen izen-abizenak eta plazaren hurrenkera zenbakia zehaztuta):

Kutxabank.

UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza.

Irakasleen lehiaketetako tasak.

Kontu korrontearen zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233

Ordainketa posta edo telegrafia igorpenaren bidez egiten duten lehiakideek Deialdien eta Lehiaketan Atalera bidali behar dute (1397 posta kutxa, 48080 – Bilbao).

Eskariak aurkezteko epean zenbateko hori osorik ordaindu ez duten lehiakide guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo falta den kopurua osatzeko.

Dena dela, azterketa eskubideak ordaindu arren, ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eskaria ere aurkeztea errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

2.2.– Betebehar akademiko espezifikoak:

Irakasle osoen kategoriako plazetarako:

a) Doktore titulua izatea.

Beste estatu batzuek igorritako tituluak izanez gero, homologatuta egon behar dute azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan jasotako aurreikuspenen arabera edo atzerriko goi mailako hezkuntza tituluak master eta doktoregoko titulu eta gradu akademikoekin homologatzeko prozeduraren bidez, zeina Gobernu Kontseiluak onartu baitzuen 2010eko maiatzaren 20an (2010eko urriaren 22ko EHAA).

b) Gobernuak araudien bidez finkatutako ikerketa eta irakaskuntza jardueraren aldeko ebaluazioa edukitzea, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziaren edo euskal araudian onartutako antzeko erakunde baten txosten batez egiaztatuta (UNIBASQeko irakasle osoa kontratatzeko).

c) Hizkuntza eskakizun elebiduna daukaten plazetan, euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatzea, bide hauetakoren bat erabiliz:

c.1.– Euskararen arloko errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) xedatutakoa betetzea, edo, bestela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) aurkeztea.

Kasu honetan, bai titulua bai baliozkotzea lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen lortutakoak izan beharko dira.

c.2.– Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren zehaztutakoari jarraituz, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko dena (2012ko apirilaren 16ko EHAA).

d) Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, kasuan kasuko hizkuntzan eskolak emateko gaitasuna eduki beharko da egiaztatuta, modu honetara:

d.1.– Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruz Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24ko akordioaren bidez onartutako arautegian ezarritakoaren arabera (2010-12-02ko EHAA).

e) Barne promozioko txandan deitutako lanpostuetan, zerbitzu efektiboak eman izana egiaztatzea, irakasle agregatu gisa edo unibertsitateko irakasle titular gisa, gutxienez bi urtez.

f) Txanda libreko txandan deitutako lanpostuetan, 2022ko EPEan sartutakoak, Unibertsitate mailako irakaskuntzan eta ikerketan gutxien dela hiru urtez aritu izana irakasle agregatu kategorian, doktore titulua izatea ezinbesteko duen unibertsitateko irakasleen beste kidegoren batean. Hori guztia alde batera utzi gabe irakasle kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatzeko prozedurari buruzko arautegiko xedapen gehigarria bakarrean xedatutakoari (2008ko uztailaren 15eko EHAA). Izan ere, horren arabera, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, aldi baterako xedapenetatik bigarrenean zehaztutakoaren babesean irakasle agregatu izatera heldu direnen kasuan, Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak, salbuespen moduan, erabaki dezake irakasle horiek irakasle osoen plazetako lehiaketetara aurkeztean ez dutela egiaztatu behar baldintza hori.

2.3.– Ezingo dira lehiaketara aurkeztu UPV/EHUn lanean diharduten karrerako funtzionarioak, baldin eta betetzen ari diren plazak ezaugarri berberak badauzka (kategoria, jakintza arloa, saila, ikastegia eta hizkuntza eskakizuna).

2.4.– Epaimahaiak beste estatu batzuetako lehiakideei gaztelaniaz dakitela egiazta dezatela eskatu ahalko die, baldin eta uste badu probetan ez dela behar bezala egiaztatu.

2.5.– Artikulu honetan adierazitako baldintzak eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako eduki beharko dira beteta, eta lehiakideek baldintzok betetzen jarraitu beharko dute dagokion irakasle iraunkorraren kontratua egin arte.

2.6.– Desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan parte hartzeko baldintzak.

Txanda honetan parte hartu ahal izango dute dagokion kidegoan sartzeko eskatzen diren baldintza orokorrak eta espezifikokoak betetzeaz gain, Foru Aldundietako, dagokion Autonomia Erkidegoko edo, hala badagokio, Estatuko Administrazio Orokorreko Gizarte Ongizateko Sailtako organo eskudunek eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila aitortuta duten pertsonak, edo irakaskuntzako ez den beste lanbide batean ezintasun iraunkor osoagatiko pentsioa aitortuta dutenek, betiere bi kasuetan ez bada bateraezina irakaskuntzan aritzearekin, eta lortu nahi den kidego eta espezialitate horri dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala badu.

Hala ere, oposizio faseko probak egiten diren bitartean epaimahaiak zalantzak baditu izangaiak lortu nahi duen kidegoko eta espezialitateko funtzionarioek egin ohi dituzten jarduerak egiteko gaitasunari buruz, deialdia egin duen organoari jakinaraziko dio, eta organo horrek dagokion irizpena eskatu ahal izango dio organo eskudunari. Kasu horretan, eta irizpena eman arte, izangaiak hautaketa prozesuan baldintzapean parte hartzen jarraitu ahal izango du, eta prozesuan onartzeko edo baztertzeko behin betiko ebazpena etenda geratuko da, irizpena jaso arte.

3.– Eskaerak.

3.1.– Hautaketa probetan parte hartzeko eskaera egiteko, deialdi honetako III. eranskineko eredu erabiliko da.

3.2.– Lehiaketan parte hartu nahi duten hautagaiek eskaera bidaliko diote Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezartzen dituen bideetako bat erabiliz, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko den hamabost egun balioduneko epearen barruan. Eskaerak egiteko III. eranskineko eredia erabili beharko da, eta eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira, lehiaketan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuekin batera. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eskaera aurkezteko azken egunerako bete beharko dira.

Parte hartzeko eskaera UPV/EHUko erregistro elektronikoen bitartez aurkeztu beharko da: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, «Jasotzailea» atalean, «Irakasle-Ikertzaielen Arloko Errektoreordetza» aukeratu behar da, eta, bigarrenik, «Deialdi eta Lehiaketen Atala» (U02000368). Interesatuak identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko du: UPV/EHUko txartela (Izenpe); Izenpe ziurtagiri digitala; NAN elektronikoa; edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Eta hori hala da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (14.e) art.), eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin, zeinaren bidez onartu baitziren interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikotan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere.

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoa sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, hori guztia UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiaren arabera, zeinaren bidez onartu baitziren gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoen zerrenda UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan eskura daiteke, eta, gainera: Leioako Errektoregoko bulegoan, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Vitoria-Gasteiz) eta Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola ikasgelategian (Donostia). Interneten ere kontsulta daiteke: [http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html). Erregistro gaietan laguntzeko bulegoen ordutegia helbide honetan kontsulta daiteke: <https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Eskaera posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar dute. 1829/1999 Errege Dekretuak posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

«Herriarrek edo erakundeek administrazio publikoetako organoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, posta zerbitzu unibertsala emateko prestazioa agindu zaion operadorearen bitartez, gutun-azala irekita aurkeztu beharko dute, bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorleak igorpenaren xehetasunak ere agertzeko eska dezake, igorri nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreproduktzioaren aurreneko orria jatorrizko agiriarekin parekatu eta berdinak direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazioeko organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.

Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun-azala, eta enpleguatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.

Posta zerbitzu orokorraren bidez artikulu honetan zehaztutako moduan egiten diren bidalketak behar bezala bidalitakotzat joko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16. artikuluan xedatzen duenaren arabera».

Kontuan izan behar da, lehiaketan parte hartzeko eskabidea atzerrian aurkeztuz gero, Espainiako ordezkariak diplomatikoan edo kontsuletxeko bulegoan egin beharko dela, eta ez dela baliozkoa atzerriko posta zerbitzuen bidez aurkeztutakoa.

Behin eskabideak onartzeko epea amaituta, ez da berriro irekiko merezimenduak aurkezteko edo adierazitakoak justifikatzeko eperik.

3.3.– Eskariarekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia (espainiar nazionalitatea daukaten hautagaiek).

Espainiar nazionalitatea ez daukaten lehiakideek beren nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

b) Deialdi honetako 2.2 oinarrian aipatzen diren baldintza akademiko espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia sinplea.

c) Azterketa eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

d) Merezimenduen ziurtagirien fotokopia sinpleak. Merezimenduak aipatzen dira irakasle kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatzekeko prozeduraren 15. artikuluan. Prozedura hori Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartu zuen, eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (uztailaren 15eko EHAA).

e) Zinpeko aitorpena (VI. eranskina).

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuak Lehiaketan Atalean gordailututa egongo dira bi hilabeteko epean, Batzordeak proposamena egiten duen egunetik zenbatzen hasita, salbu eta errekurtsorik jartzen bada; kasu horretan, gordailuak aurrera egingo du erabaki irmoa eman arte.

Beste urtebete igaro eta interesdunek ez badute dokumentazio hori jaso, unibertsitateak suntsitu egin dezake.

4.– Lehiakideak onartzea.

4.1.– Eskariak aurkezteko epea behin amaituta, errektoreak agindua emango du lehiaketarako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzeari buruzko erabakia argitaratzeko irakasle eta ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta UPV/EHUko web orrian. Erabakian jasota geratuko da zein izan den lehiakidea baztertzeko arrazoia, eta 10 egun balioduneko epe luzaezina ezarriko da UPV/EHUko web orrian argitaratzen denetik akatsak zuzentzeko. Hala ere, zuzentzeko epe horretan lehiakideek ezin izango dute aurkeztu eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako egiaztagiririk.

4.2.– Plaza elebiduna bada, lehiakideek euskaraz dakitela egiaztatu beharko dute, 2.2.b). oinarrian zehaztutakoaren arabera. Horrela egiten ez duten lehiakideak baztertuak izango dira.

4.3.– Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, lehiakideek kasuan kasuko hizkuntzaren ezagutza egiaztatu beharko dute, 2.2.c) oinarrian zehaztutakoaren arabera. Horrela egiten ez duten lehiakideak baztertuak izango dira.

4.4.– Eskaerekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, errektoreak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakia emango du, eta erabaki hori Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean argitaratuko da, bai eta UPV/EHUREN webgunean ere.

Erabaki hori izapide egintza kualifikatua da, eta aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da haren aurka UPV/EHUKO errektorearen aurrean, erabakia UPV/EHUREN web orrian argitaratu eta hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoek ezarritako moduan (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea), edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakian jasota ageriko da merezimenduak aurkezteko probarako deia UPV/EHUKO webgunean argitaratuko dela.

4.5.– Ezin izango da aurkeztu onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren aurkako errekurtsorik, baldin eta interesdunak ez badu behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, bere hartan utziriko egintza irmoa delako.

## 5.– Epaimahaiak.

5.1.– Lehiaketetako epaimahaiak erabaki honen II. eranskinean adierazitako pertsonak osatuko dituzte, eta errektoreak izendatuko ditu. Epaimahaiei buruzko alderdiak jasota daude irakasle kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatzekeko prozeduraren araudian (10. artikulua), Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an bileran onartutakoa, Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez argitaratua (uztailaren 15eko EHAA) eta Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6 bileraren akordioak aldatutakoa (2014ko azaroaren 20ko EHAA).

Epaimahaiak bost titularrek eta beste hainbeste ordezkok osatuko dituzte. Epaimahaiburua eta idazkaria epaimahaiko kideek aukeratuko dituzte beren artean.

Epaimahaiaren lehenengo bilerarako, eraketarako, epaimahaiburu eta idazkariaren hautaketarako deialdia, komunikazioak eta gainerako jarduerak saileko zuzendarien bidez egingo dira.

5.2.– Epaimahaikideek ezingo diote uko egin izendapenari, bertan aritzea eragozten dien arrazoi justifikaturik ez badaukate behintzat. Errektoregoak, halakoetan, adierazitako arrazoiak aztertuko du, eta erabakia hartuko bost egun balioduneko epean, izendapenari ezetz esaten dion idatzia jasotzen denetik kontaktzen hasita.

5.3.– Lehiakideek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edo epaimahaikideek uko egin ahal izango diote parte hartzeari, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako parte ez hartzeko edo errekusatzeko egoeraren bat sortuz gero (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea).

Epaimahaikide titularrei bertan aritzea eragozten dien arrazoiren bat egonez gero (parte ez hartzeko edo errekusazio kasuetan, edo beste edozein arrazoirengatik), ordezkok kideak arituko dira haien ordean.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun epaimahaietan, prozeduran parte ez hartzeko edo errefusatua izateko egoeraren batean dagoelako, kategoria eta antzintasun handieneko ordezkoa arituko da haren ordean. Ordezko guztiei ezinezkoa bazaie epaimahaietan aritzea eta ezinezkoa bada epaimahaiak ondorengo artikuluan azaltzen den moduan eratzea, beste epaimahai bat izendatuko da.

5.4.– Epaimahaia eratzeko deialdia epaimahaikide titular eta ordezeko guztiei jakinaraziko zaie, bilera eguna baino 15 egun lehenago, gutxienez. Bilerako deialdian eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira, eta UPV/EHUko web orrian eta probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko da. Epaimahaia eratzerakoan kide titular guztiak bertan egonez gero, ordezekoak ez dute zertan joan.

5.5.– Epaimahaia balioz eratzeko, gutxien dela bost kidek egon beharko dute. Epaimahaikideak egon daitezke funtzio publikoaren arautegian aurreikusitako edozein egoeratan edo haien parekoetan lan kontratudun langileen kasuan, borondatezko eszedentzian edo eginkizun gabetzean izan ezik. Seme-alabak zaintzeko eszedentzian daudenek parte hartu ahal izango dute epaimahaietan.

Epaimahaikide titularren batek eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabetzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, epaimahaia utziko du, eta ordezekoa jarriko zaio.

Epaimahaikide ordezkoren batek borondatezko eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabetzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, ordezkoren artetik kategoria eta antzintasun handiena daukanak hartuko du haren lekua. Aukera horiek guztiak agortuta ezin bada epaimahaia eratu, beste epaimahai bat izendatuko da.

Hala ere, behin epaimahaia eratuta, erabakiak hartzeko nahikoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo beren legezko ordezekoak, eta epaimahaikideetako bat bertan izatea.

Epaimahaia eratzean bertan ez dauden kideak behin betiko geratuko dira epaimahaiaren jardueratik baztertuta.

5.6.– Lehen bileran, epaimahaiak honako erabaki hauek hartu beharko ditu, besteak beste:

- 1) Epaimahaiburuaren eta idazkariaren hautaketa.
- 2) Probetako emaitzak non argitaratuko diren, ikastegiko iragarki oholez gainera.
- 3) Lehiakideek zein hurrenkeratan hartuko duten parte probetan.
- 4) Balioespen irizpide zehatzak onartzea.

5.7.– Aipatutako erabaki guztiak probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko dira, gutxienez.

5.8.– Epaimahaiaren jardun administratiboaz eta gestio ekonomikoaz idazkaria arduratuko da, unibertsitateko administrazioko langileen laguntzarekin.

6.– Probak.

6.1.– Epaimahaiek, jarduterakoan, bermatu egingo dute lehiakide guztiek aukera berberak dituztela, eta publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko dituzte.

6.2.– Deialdi honetan eta irakasle kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatuzko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez argitaratua, uztailaren 15eko EHAAn, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAAn) zehaztuta ez dauden alderdietarako, epaimahaiak jarraituko dio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoez xedatzen duenari.

6.3.– Probak egiten hasi aurretik, epaimahaiak eguna eta ordua zehaztuko ditu, lehiakideek lehenengo proban erabiliko dituzten merituen aurkezpenak argitaratu emango da, UPV/EHUren webgunean jarrita eta probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean. Lehiakideek merezimendu horien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte bertan. Epaimahaiak, era berean, gainerako probak zein egun eta ordutan egingo diren zehaztuko du.

Merezimenduak aurkezteko ekitaldia epaimahaiak eratu eta hurrengo egun baliodunean izango da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri.

6.4.– Lehenengo proba lehiakideek agiriak eta merezimenduak aurkeztu eta hurrengo egun baliodunean egingo da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri. Hurrengo probak hori bukatu eta berehala egingo dira.

6.5.– Ez da beharrezkoa fotokopiak erkatzea, baina aurkezpena jatorrizkoak eraman beharko dira, epaimahaiak eta gainerako lehiakideek egiaztatzeak aukera izan dezaten.

Eskatzaileek aukera izango dute eskarian adierazitako datuak zehaztu edo osatzeko nahi dituzten elementuak gehitzeko, eta epaimahaiak erabakiko du onartu eta kontuan hartuko dituen.

6.6.– Oinarri hauetako 6.8. oinarrian aipatutako dokumentuak bi hilabetez edukiko dituzte gordeta Deialdi eta Lehiaketan Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik zenbatzen hasita. Baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta eduki beharko dira, ebazpen administratibo edo judizial irimo bat eman arte.

Beste urtebete igarotzen bada eta interesatuak ez badira aipatutako dokumentuak hartzera joan, unibertsitateak dokumentuak suntsitu ahal izango ditu.

6.7.– Epaimahaiko buruak aurkezpen ekitaldian jakinaraziko du, halaber, lehiakideek zein epe izango duten gainerako lehiakideek proba egin baino lehenago aurkeztutako dokumentuak aztertzeak.

6.8.– Lehiakideek honako dokumentu hauek emango dizkiote epaimahaiburuari aurkezpen ekitaldian:

6.8.1.– Irakasle osoaren kategoriako plazetan:

- a) Curriculum vitae (bost ale), VII. eranskineko ereduari jarraiki; eta curriculumean aipatutakoa egiaztatzen duten argitalpenen eta dokumentuen ale bana.
- b) Lehiakideak plaza eskuratzen badu aurrera eramango duen irakaskuntza programa edo proiektua edo ikerketa proiektua (bost ale). Unibertsitateak deialdian emandako zehaztapenetara egokituko dira proiektu edo programa horiek.
- c) Lanpostuari dagokion jakintza arloko ikerlan originala (bost ale).

6.9.– Irakasle iraunkorren plazetarako lehiaketak hiru proba edo fase izango ditu, denak baztertzailak. Proba horiek ebaluatzeak, kontuan hartuko dira irakasle kontratatu iraunkorren hautatzeko eta kontratatzeak prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua, eta 2008ko uztailaren 15eko EHAAn argitaratua, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAAn) ezarritako Irizpide Orokorrak eta Irizpide Espezifikokoak (IX. eranskina) eta epaimahaiak onartutako irizpide zehatzak.

6.10.– Irakasle osoaren kategorian, lehen proban edo fasean, lehiakideak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eta, hala dagokionean, arlo profesionalean egindako ibilbidea eta lortutako merezimenduak aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Hautagaiek behar beste denbora izango dute ahozko azalpen horretarako, baina 60 minututik pasatu gabe.



Ondoren, epaimahaiak lehiakide bakoitzarekin eztabaidatuko du, bi orduz gehienez, alegatutako merezimenduen inguruan.

Epaimahaiak adituen iritzia eskatu ahal izango du, lehiakideen merezimenduei buruz. Nolanahi ere, txostenak ez dira lotesleak izango, eta lehiaketaren aktari atxikiko zaizkio.

Proba horretan, 50 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta bigarren probara igarotzeko, 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Irakasle osoaren kategorian, bigarren fasean edo proban, lehiakideak proposatutako irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua(k) aurkeztu eta aztertuko ditu epaimahaiarekin.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta hirugarren probara igarotzeko, 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

Irakasle osoaren kategorian, hirugarren proban, hautagaiak lanpostuari dagokion jakintza arloan egindako ikerlan original bat aurkeztu eta eztabaidatu beharko du.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.11.– Lehiakide bakar batek ere proba edo fase guztiak gainditu ezean, epaimahaiak eman gabe utziko ditu plazak.

6.12.– Proba edo fase bakoitza bukatuta, epaimahaia bilduko da, eta kide bakoitzak puntuazio bat emango dio lehiakide bakoitzari, eta balorazio hori azaltzeko txostena aurkeztuko du. Lehiakideak baloratzean, baremo orokorrari eta epaimahaiak onartutako irizpide espezifikoek erreparatutako diete epaimahaikideek. Epaimahaikide guztiak ados badaude, txosten bakar bat egin ahal izango du epaimahaiak, kuantifikatua eta arrazoitua.

Berdinketarik badago, epaimahaiburuak kalitate botoa izango du.

6.13.– Epaimahaiak, IX. eranskinean adierazitako irizpide orokor eta espezifikoek gain, honako irizpide orokor hauek izan beharko ditu kontuan:

- a) Epaimahaian parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errekusatzeko eskariak behin ebatzita, epaimahaikideek ezin izango dute utzi balioetsi eta kalifikatu gabe lehiakiderik.
- b) Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide guztiak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako proba guztiak baztertzailak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da. Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea, prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

6.14.– Epaimahaiak beste estatu batzuetako lehiakideei gatzelaniaz dakitela egiazta dezatela eskatu ahalko die, baldin eta uste badu probetan ez dela behar bezala egiaztatuta.

7.– Merezimenduen balorazioa (IV. eranskina).

Hiru probak egin ondoren eta hautaketa prozesua zer hautagaik gainditu duten zehaztu ondoren, merezimenduak balioetsiko dira, honako hauen arabera:

1) Jakintza arlorako gaitasun probak gaindituta izatea (uztailaren 26ko 774/2002 ED) edo akreditazioa izatea irakasle titularrerako edo katedrarako Aneca (urriaren 5eko 1312/2007 ED): 20 puntu.

2) Euskara jakitea elebidun ez diren plazetan baino ez da izango kontuan, eta deialdi honetako VIII. eranskinari jarraiki balioetsiko da, Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 8an irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatzeke onartutako prozedurarekin (2008ko uztailaren 15eko EHAA) bat etorrira. Merezimendu honengatik prozesuan guztira lor daitekeen puntuazioaren % 11 lortu ahal izango da gehienez.

8.– Kontratazio proposamena.

8.1.– Amaierako nota bi probetan lortutako noten batura izango da, eta horri zazpigarren oinarrian aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

8.2.– Proba guztiak gainditu dituen lehiakiderik badago, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du, txostenak eta zenbaketa aritmetikoak kontuan hartuta. Epaimahaiaren proposamena probak egin diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko da, bai eta UPV/EHUn webgunean ere.

8.3.– Kontratatzeke edo plaza bete gabe uzteko proposamenean, lehiakide bakoitzaren balioespen zehatza jasoko da, arrazoiak emanda, eta lehiakide bakoitzak zenbat puntu lortu dituen ere adieraziko da. Plaza hutsik uzteko erabakiaren kontra erreklamazioa aurkez dakioke otsailaren 15eko 17/2011 Dekretu bidez (otsailaren 24ko EHAA) onartutako UPV/EHUn Estatutuaren aurreikusitako Erreklamazio Batzordeari 15 eguneko epean, erabakia UPV/EHUn webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8.4.– Ezin izango da plaza hutsik utzi seigarren oinarrian aipatutako probak gainditu dituen lehiakideren bat badago.

8.5.– Epaimahaiek lehiakideak ordenatuko dituzte lortutako puntuazioaren arabera, eta puntuazio handiena lortu duena proposatuko dute plaza betetzeko. Ezin izango dute kide gehiago proposatu lehiaketan eskainitako plaza kopurua baino.

8.6.– Aurreko atalean zehaztutakoa gorabehera, epaimahaiek ordezkioak proposatu ahal izango dituzte, puntuazioaren arabera ordenatuta, plaza betetzeko proposatu den izangaiak kontratua sinatzeari uko eginez gero, ordezeko horiengana jotzeko.

8.7.– Epaimahaikide guztiek lehiakide guztiak kalifikatu behar dituzte. Epaimahaikide guztiak kalifikazioan bat etorri gero, txosten bakarra eman ahal izango dute, 6.12. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

8.8.– Kontratuak izateko proposatuak ez diren lehiakideek ezin izango dute plaza hutsei buruzko inongo eskubiderik aldarrikatu, ez eta inongo lan poltsetan sartzea eskatu ere. Izan ere, ordezkapenak egin behar direnean prozedura orokorra erabili beharko da, hots, sailak eta jakintza arloak egindako deialdietako lan poltsa arruntetara jo.

8.9.– Epaimahaiko idazkariak bost egun baliodun izango ditu, epaimahaiaren jarduna bukatuko denetik, lehiaketako espediente administratiboa aurkezteko Deialdi eta Lehiaketa Atalaren bidez. Espedientean honako dokumentu hauek bildu beharko dira:

a) Epaimahaia eratzean egin beharreko akta eta epaimahaiaren saio guztietako aktak. Horietan jasoko dira egindako jardura nagusiak eta proben balorazioan erabilitako irizpide nagusiak, irizpide espezifikokoak eta irizpide zehatzak.

b) Lehiakideek aurkezpen ekitaldian epaimahaiburuari emandako dokumentuak, hala nola proposatutako irakaskuntza programa, ikerketa proiektuak, ikerlan originala, jakintza arloaren espezialitate edo gai baten programa, programaren gaia eta ikerlan originala.

c) Proba bakoitzaren txostenak eta zenbakizko balorazioak.

d) Probak gainditu dituzten lehiakideen merezimenduen balorazioa.

e) Plaza edo plazak betetzeko proposamenaren akta, kontrataziorako lehentasun ordenaren arabera osatutako hautagaien zerrendarekin.

8.10.– Lehiakideek Unibertsitateko Idazkaritza Nagusian eskatu ahal izango dute epaimahaikide bakoitzak beren merezimenduen inguruan emandako balioespen arrazoituaren ziurtagiria (behar bezala kuantifikatua) edo, hala badagokio, epaimahaiaren txosten bakarra.

8.11.– Lehiakideek epaimahaiaren proposamenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote errektoreari. Horretarako hamabost egun balioduneko epea izango dute, proposamena UPV/EHUko webgunean argitara ematen den egunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa izapidetzeko onartzen bada, kontratazioa eten egingo da erreklamazioa behin betiko ebatzi arte.

8.12.– UPV/EHUko Estatutuek, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretu bidez (otsailaren 24ko EHAA) onartutakoek, aurreikusitako Erreklamazio Batzordeak, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen plazak betetzeko epaimahaien erreklamazioak aztertzen dituenak, erreklamazioa aztertuko du, eta errektoreak erabakiko du.

Erreklamazio Batzordeak lehiaketako espedientea aztertuko du, lehiakideen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeko; egoki deritzen ekintza guztiak burutuko ditu, eta erreklamazioa onartzen duen ala ez erabakiko du hiru hilabeteko epearen barruan, erreklamazioa jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe hori berriazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, erreklamazioa ezetsi delako izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

8.13.– Erreklamazio Batzordeak hartutako erabakiak lotesleak izango dira errektorearentzat eta, haren erabakiek administrazio bidea agortzen dutenez, aurka egiteko administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko da zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legeari jarraituz.

8.14.– Erreklamazio Batzordeak erreklamazioa onartzea erabakiz gero, errektoreak argitara emango du erabakia, eta akatsa gertatu zen unera eramango da berriz prozedura; epaimahaiak, beharrezkoa izanez gero, beste izendapen proposamen bat egingo du.

9.– Dokumentuak aurkeztea eta kontratazioa.

9.1.– Epaimahaiak proposatutako kontratazioak errektoreak egingo ditu, lehiakideak behin egiaztatu eta gero deialdi honetako bigarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituela, Deialdi eta Lehiaketa Atalean behar diren dokumentuak aurkeztuta. Lehiakideak hogeitun eguneko epea izango du dokumentuak aurkezteko, kontratazio proposamena UPV/EHUko webgunean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

9.2.– Aurretik esandakoez gain, proposatutako lehiakideak, kontratua formalizatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu aipatutako epearen barruan:

a) Medikuen ziurtagiri ofiziala, unibertsitateko irakasleari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duena.

b) Zinpeko aitorpena, diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldentuta ez dagoela, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez dagoela adierazten duena. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko beren estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

Karrerako funtzionario publikoek edo kontratatu iraunkorrek ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko atal honetan aipatutako dokumentu eta betekizunak. Horien orde, lanean ari diren administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario edo kontratatu iraunkorrek direla egiaztatu eta haien zerbitzu orrian azaltzen diren gorabehera guztiak adieraziko dituen.

9.3.– Plaza betetzeko proposatutako lehiakideak ez baditu aurkezten eskatutako dokumentuak, galdu egingo ditu bere eskubideak, eta ezin izango du kontratua sinatu, ez baldin badu egiaztatzen dokumentuak ez aurkeztea ezinbesteko arrazoiengatik izan dela. Unibertsitateko errektoreak zerrendako hurrengo lehiakidearekin sinatuko du kontratua, lehiakide horrek gorago aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Hogei eguneko epea izango du horretarako, arrazoia jakinarazten denetik kontaktzen hasita.

#### 10.– Azken araua.

10.1.– Deialdi honetan eta irakasle kontratatu iraunkorrek hautatu eta kontratatzekeko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko maiatzaren 8an onartua eta Irakasleen errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Erabakiaren bidez argitaratua, uztailaren 15eko EHAA, Gobernu Kontseiluaren 2014ko azaroaren 6ko akordioaren bidez aldatu zena, azaroaren 20ko EHAA) egunak zenbatzerakoan ez da aintzat hartuko abuztua. Hilabete horretan ez da inongo ekintzarik burutuko.

10.2.– Lehiaketa egin bitartean, epaimahaiek argituko dituzte deialdiaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak, bai eta aurreikusi ez diren egoeretan nola jokatu ere. Dena dela, epaimahaien jarduna bat etorri beharko da urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearekin eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearekin.

10.3.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabetetako epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bestela, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala egiten bada, ezin izango da jarri aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua, harik eta berraztertzeke errekurtsua berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte.

10.4.– Era berean, deialdi honetatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako kasuetan eta bertan adierazitako moduan.

Leioa, 2023ko azaroaren 24a.

Errektorea.

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena, 2021-02-12ko EHAA).

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea,  
FEDERICO RECART BARAÑANO.

## I. ERANSKINA

Plazaren zenbakia: 1. Kodea: PLC8L1 – D00042-1. Kategoria: Irakasle Osoa. Jakintza arloa: Biokimika eta Biologia Molekularra. Saila: Biokimika eta Biologia Molekularra. Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Biokimikako Metodo Aurreratuak».

Plazaren zenbakia: 2. Kodea: PLC8L1 – D00233-1. Kategoria: Irakasle Osoa. Jakintza arloa: Administrazio Zuzenbidea. Saila: Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia. Ikastegia: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Administrazio Zuzenbidea, I», «Administrazio Zuzenbidea II», «Administrazio Zuzenbidea III» eta «Hizkuntza Zuzenbidea».

Plazaren zenbakia: 3. Kodea: PLC8L1 – D00302-3. Kategoria: Irakasle Osoa. Jakintza arloa: Zientzien eta Portaeraren Metodologia. Saila: Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia. Ikastegia: Psikologia Fakultatea. Hizkuntz eskakizuna: Elebiduna. Arduraldia: Osoa. Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak: «Psikologiako Metodologia»

## II. ERANSKINA

1.– Plaza betetzeko lehiaketako epaimahaia. Kategoria: Irakaslego osoa. Jakintza arloa: Biokimika eta Biologia Molekularra. Kodea: PLC8L1 – D00042-1.

Batzorde titularra:

Mónica López Fanagarra. Unibertsitateko katedraduna. Kantabriako Unibertsitatea.  
José Luis Nieva Escandón. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Gabriel Moncalián Montes. Unibertsitateko katedraduna. Kantabriako Unibertsitatea.  
María Almudena Porras. Unibertsitateko katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.  
Elena Maya Ostolaza Echabe. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ordezko batzordea:

Francisco Jesús Estévez Rosas. Unibertsitateko katedraduna Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitatea.

Jose Carlos Rodríguez Rey. Unibertsitateko katedraduna. Kantabriako Unibertsitatea.  
María Teresa Alonso Alonso. Unibertsitateko katedraduna. Valladolideko Unibertsitatea.  
Patricia Aspichueta Celaá. Irakaslego osoa. Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Ana María Zubiaga Elordieta. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.– Plaza betetzeko lehiaketako epaimahaia. Kategoria: Irakaslego osoa. Jakintza arloa: Administrazio Zuzenbidea. Kodea: PLC8L1 – D00233-1.

Batzorde titularra:

Leopoldo Tolivar Alas. Unibertsitateko katedraduna. Oviedoko Unibertsitatea.  
José Ramón Bengoetxea Caballero. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Maria Belén Noguera De La Muela. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitatea.  
Mercé Barceló I Serramalera. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.  
Jon Mirena Landa Gorostiaga. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ordezko batzordea:

Juli Ponce Sole. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitatea.  
Marta Franch Saguer. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.  
Marta María García Pérez. Unibertsitateko katedraduna. Coruñaiko Unibertsitatea.  
José Francisco Etxeberria Guridi. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.  
Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

3.– Plaza betetzeko lehiaketako epaimahaia. Kategoria: Irakaslego osoa. Jakintza arloa: Zientzien eta Portaeraren Metodologia. Kodea: PLC8L1 – D00302-3.

Batzorde titularra:

María Africa Borges Del Rosal. Unibertsitateko katedraduna. La Lagunako Unibertsitatea.

Paula Elosua Oliden. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Carme Villadrich Segués. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

Constantino Arce Fernández. Unibertsitateko katedraduna. Santiagoko Unibertsitatea.

Juan Etxeberria Murgiondo. Unibertsitateko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ordezko batzordea:

María Dolores Frías Navarro. Unibertsitateko katedraduna. Valentziako Estudi General Unibertsitatea.

Georgina Guilera Ferrer. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitatea.

Juan García García. Unibertsitateko katedraduna. Almeriako Unibertsitatea.

Itziar Alonso Arbiol. Irakaslego osoa. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Igor Esnaola Echaniz. Irakaslego osoa. Euskal Herriko Unibertsitatea.

## III. ERANSKINA

## ESKAERA-ORRIA

Errektorea:

Irakasle osoen kategoriako plazak esleitzeko lehiaketaren deialdia egin denez, plaza horietako bat betetzeko hautagaia izateko eskaria egiten dut.

I.– Lehiaketara ateratako plazaren datuak.

Plazaren Kodea	Kategoria	Jakintza arloa
Saila	Ikastegia	
Arduraldia	Hizkuntza eskakizuna	
Egin beharreko irakaslanak eta ikerlanak		
Deialdiari buruzko erabakia	EHAAko data	

II.– Datu pertsonalak.

Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena	
Jaiotze eguna	Jaiotze toki	Probintzia	N.A.N
Helbidea (jakinarazpenetarako)		Telefonoa	Helbide elektronikoa
Udalerria	Posta Kodea	Probintzia	



2023ko abenduaren 11, astelehena

## III.– Datu akademikoak.

Tituluak	Noiz lortuak
<b>Irakaskuntza Esperientzia</b>	
<b>Eskariarekin Batera Aurkeztutako Agiriak</b>	

.....(e), 20.....(e)ko.....ren.....(e)(a)n

Interesdunaren sinadura

IV. ERANSKINA  
MEREZIMENDUAK

1.– Jakintza-arlorako gaitasun-probak gaindituta izatea (774/2002 ED, uztailaren 26koa) edo akreditazioa izatea irakasle titularerako edo katedrarako Aneca (1312/2007 ED, urriaren 5ekoa):

.....  
.....

2.– Euskararen ezagutza egiaztatzeko agiria (plaza ez-elebidunetan):

.....  
.....

## V. ERANSKINA

## PROBAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Probak euskaraz egin nahi dituzu?

Bai

Ez

Ezer markatu ezean, hautagaiak probak gaztelaniaz egin nahi dituela ulertuko da.

Eskabidea eta eranskinak behin aurkeztuta, ezin izango da proben hizkuntza hautapena aldatu.

Probak euskaraz egitea aukeratuz gero, hautagaiak Itzulpen Zerbitzuaren baldintzak onartutzat joko dira.

2023ko abenduaren 11, astelehena

## VI. ERANSKINA

## ZINPEKO AITORPENA

Sinatzaileak,.....jaun/andreak,

ESKATZEN DU: jarraian aipatutako Kodearekin identifikatutako plaza betetzeko lehiaketan parte hartzea:

Jakintza arloa:.....

ADIERAZTEN DU: izapide honetan aurkeztutako informazio guztia egiazkoa dela, informazio hori egiaztatzen duten jatorrizko edo autentifikatutako agiriak dituela (tituluak, ziurtagiriak eta gainerako agiri ofizialak barne). Era berean, informazio horren egiazkotasunaren erantzule egiten da, bai eta informazio hori faltsutzearen ondorioz sor daitezkeen kaltegaleren erantzule ere. Aipatutako deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, baita Funtzio Publikora sartzeko eskatutako baldintza orokorrak ere.

Ez dutela baztertu Estatuko Administrazioetik edo Administrazio Autonomotik, instituzionaletik zein tokikotik, eta ez dagoela funtzio publikoak egiteko ezgaituta edo ez duela horrelakoetarako debekurik.

Unibertsitateko irakaslearen ohiko jarduna eragozten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea.

....., 20.....(e)ko.....ren.....(a)

Interesatuaren sinadura

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTORE  
ANDREA

## VII. ERANSKINA

### CURRICULUM VITAE

Datu pertsonalak:

Abizenak eta izena.

Nortasun agiriaren zenbakia.

Non eta noiz emana:

Jaiotza: data, herria eta probintzia.

Bizilekua: helbidea, udalerrria, probintzia eta telefono zk.

Egungo kategoria irakasle kidegoetan.

Irakaskuntza eta ikerketa jardueren ebaluazio positiboa (Aneca edo Uniqua).

Datu akademikoak:

1.– Titulu akademikoak (mota, zer erakundek edo zentrok emana, noiz emana, kalifikazioa, edukiz gero).

2.– Irakasle gisa izandako lanpostuak (kategoria, erakundea edo zentroa, arduraldia, izendapenaren edo kontratuaren hasiera eta amaiera data).

3.– Ikerketa jarduerak.

4.– Argitaratutako liburu eta monografiak (egilea edo egileak, izenburua, argitaratzailea, argitaletxea eta urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).

5.– Espainiako edo atzerriko aldizkarietan argitaratutako lan zientifikoak (egilea edo egileak, izenburua, aldizkaria, alea, orrialdea, urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).

6.– Beste argitalpen batzuk.

7.– Beste ikerlan batzuk.

8.– Ikerketa proiektuak, dirulaguntzaz egindakoak.

9.– Biltzarretan aurkeztutako komunikazioak eta hitzaldiak.

10.– Patenteak.

11.– Emandako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

12.– Hartutako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

13.– Jasotako bekak, laguntzak eta sariak (lizentziatu ondorengoak).

14.– Enpresetan eta norbere kabuz egindako jarduerak.

15.– Kargu akademikoak eta erakunde mailakoak.

16.– Irakaskuntza edo ikerketa arloko beste merezimendu batzuk.

17.– Beste merezimendu batzuk.

## VIII. ERANSKINA

### EUSKARAREN JAKITE MAILA

C2 eta C1 MAILAK: 13,20 puntu.

- Itzulpengintza eta Interpretazioko Lizentziatura, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Filologiako Lizentzia.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako Gradua.
- Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea).
- Osakidetzaren 4. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEn 4. hizkuntza eskakizuna.
- HABEn 4. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)
- Irakasleen Unibertsitate Eskola euskaraz.
- Gaitasun agiria.
- UPV/EHUen eskolak euskaraz emateko agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Iparralde Euskararen Erakunde Publikoak-Office Public de la Langue Basque-rena.
- Euskaltzaindiaren D agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailarena.
- C1 Gaitasun Maila, EAEko hizkuntza eskola ofizialetakoa.
- Hizkuntza eskola ofizialetako Gaitasun Maila edo 5. maila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 3. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEn 3. hizkuntza eskakizuna.
- HABEn 3. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEn 12. maila  
HABEn 11. maila  
HABEn 10. maila

9,90 puntu.  
9,24 puntu.  
8,58 puntu.

## B2 MAILA

7,92 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen Maila Aurreratua.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako laugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Hezkuntza, Unibertsitate, Ikerketa Sailaren irakasle lanpostuen 1. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 2. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 2. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEren 9. maila:

7,26 puntu.

HABEren 8. maila:

5,94 puntu.

## B1 MAILA

5,28 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen oinarrizko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen tarteko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako hirugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Osakidetzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEren 1. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 1. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEren 7. maila:

4,62 puntu.

HABEren 6. maila:

3,96 puntu.

HABEren 5. maila:

3,30 puntu.

HABEren 4. maila:

2,64 puntu.

HABEren 3. maila:

1,98 puntu.

HABEren 2. maila:

1,32 puntu.

HABEren 1. maila:

0,66 puntu.

## IX. ERANSKINA

## IRAKASLE ETA IKERTZAILE KONTRATATU IRAUNKORRAK HAUTATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

Irakasle osoak hautatzeko epaimahaiak kontuan hartu beharko ditu honako irizpide orokor hauek:

1.– Epaimahaiaren parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errefusatzeko arrazoiak behin onartuta, epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiakiderik utzi balioetsi eta kalifikatu gabe.

2.– Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide bakoitzak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako proba guztiak baztertzailerak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da.

Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea, prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri 15. artikuluan aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

3.– Lehenengo proban edo fasean, lehiakideak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eta, horrelakorik izanez gero, lan arloan egindako ibilbidea eta lortutako merituak aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu.

Proba horretan, 50 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta bigarren fasera igarotzeko 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

4.– Bigarren fasean edo proban, lehiakideak bere irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua(k) aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Proba horretan, 25 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta hirugarren fasera igarotzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

5.– Hirugarren fasean edo proban, postuari dagokion jakintza arloan egindako ikerlan original bat aurkeztu eta aztertuko du lehiakideak. Proba horretan, 25 puntu lortu ahal izango dira, guztira, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.– Epaimahaiak plaza betetzeko proposamena egingo du, hiru probetan lortutako puntuazioaren batez bestekoan lortutako emaitzaren arabera ordenatuta, puntuaziorik handienetik txikienera. Berdinketa egonez gero, 1., 2. eta 3. proban, hurrenkera horretan, puntuazio onena lortutako lehiakidea proposatuko da.

7.– Epaimahaiak baloratu egin behar ditu abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa eta irakaskuntza aldiak.

8.– Epaimahaiak irizpide espezifiko guztiak haztatu beharko dituzte, kontuan izanda zer lotura duten eskatutako irakaskuntza edo ikerketa lerroarekin edo plazaren ezaugarriekin.

9.– Plaza ez elebidunetan euskara jakiteak proben puntuazio osoaren % 11 balioko du.



Irakasle osoen epaimahaiak lehen fasean aintzat hartu beharreko irizpide espezifikoak (ez dira nahitaezkoak eta ez dute puntuazio zehatzik):

Ikerketa jarduera:

Ikerketaren emaitzen kalitatea eta zabalkundea.- Zientziaren arloko argitalpenak, sorkuntza artistiko profesionalak, biltzarrak, hitzaldiak, mintegiak eta abar.

Ikerketa proiektuen eta kontratuen kalitatea eta kopurua.

Emaitzen transferentziaren kalitatea.- Patenteak eta jabetza intelektualen erregistroa, ezagutzaren transferentzia ekoizpen sektorera, etab.

Irakasleen mugikortasuna.- Egonaldiak ikerketa zentroetan etab.

Beste merezimendu batzuk:

Azalpenen argitasuna, aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako ikerketaaldiak.

Irakaskuntzako edo lan arloko jarduerak:

Irakaskuntza.- Noiztik noiz artekoa, zenbat motatakoa, zelako trinkotasunekoa, ardura, zikloak, unibertsitatean emandako irakaskuntza mota, zuzendutako doktorego tesiak eta abar.

Irakaskuntzaren kalitatea.- Jasotako aldeko ebaluazioak, sortutako irakasmateriala, irakaskuntzari lotutako argitalpenak, hezkuntza berrikuntzako proiektuak, etab.

Irakaskuntzako prestakuntzaren kalitatea.- Unibertsitateko irakasleentzako prestakuntza kongresuetan parte hartu izana, hizlari edo entzule gisa, irakasguneetan egindako egonaldiak, eta abar.

Enpresetan, erakundeetan, ikerketako erakunde publikoetan edo ospitaletan izandako jarduerak profesionalen kalitatea eta jarduerak horietan emandako denbora (irakaskuntza eta ikerketaren arlokoak ez diren jarduerak).- Arduraldia, jardueraren ebaluazio positiboa, eta abar.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako irakaskuntzaaldiak.

Lehiaketako 2. eta 3. probetan, eztabaidan azalpenak emateko argitasuna, eta irakaskuntza programaren edo ikerketa proiektuaren originaltasuna balioetsiko dira.

Irakasle agregatuak hautatzeko epaimahaiak kontuan hartu beharko ditu honako irizpide orokor hauek:

1.– Epaimahaian parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errefusatzeko arrazoiak behin onartuta, epaimahaiko kideek ezin izango dute lehiakiderik utzi balioetsi eta kalifikatu gabe.

2.– Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide bakoitzak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako probak baztertzailak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da.

Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko.

Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri 15. artikuluan aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

3.– Lehen fasean edo proban, hautagaiak bere merituak, ikasketa, irakaskuntza eta ikerketa ibilbidea aurkeztu eta aztertuko du epaimahaiarekin batera eta, bai eta irakaskuntza eta ikerketa proiektua ere. Horren barruan, dagokion jakintza arloaren espezialitate edo gai baten programa sartuko da. Proban, 50 lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta 2. fasera igarotzeko 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

4.– Bigarren fasean edo proban, zozketan ateratako 3 gairen artean, hautagaiak bat aukeratu, eta horri dagokion programa aurkeztu eta aztertuko epaimahaiarekin batera. Proban, 25 puntu lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta 3. fasera igarotzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

5.– Hirugarren proban, hautagaiak ikerlan original bat aurkeztu eta aztertuko du epaimahaiarekin batera. Proban, 25 puntu lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.– Epaimahaiak plaza betetzeko proposamena egingo du, hautagaiak puntuaziorik handienetik txikienera ordenatuta, hiru probetan lortutako puntuazioaren batez bestekoan lortutako emaitzaren arabera.

Berdinketa egonez gero, 1., 2. eta 3. proban, hurrenkera horretan, puntuazio onena lortutako lehiakidea proposatuko da.

7.– Epaimahaiak baloratu egin behar ditu abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa eta irakaskuntza aldiak.

8.– Epaimahaiak irizpide espezifikoko guztiak haztatu beharko dituzte, kontuan izanda zer lotura duten eskatutako irakaskuntza edo ikerketa lerroarekin edo plazaren ezaugarriekin.

9.– Plaza ez elebidunetan euskara jakiteak proben puntuazio osoaren % 11 balioko du.

Irakasle agregatuak aukeratzeko epaimahaiak lehen fasean aintzat hartuko ditu irizpide espezifikoko hauek (ez dira nahitaezkoak eta ez dute puntuazio zehatzik):

#### Ikerketa jarduerak:

Ikerketaren emaitzen kalitatea eta zabalkundea.- Zientziaren arloko argitalpenak, sorkuntza artistiko profesionalak, biltzarrak, hitzaldiak, mintegiak eta abar.

Ikerketa proiektuen eta kontratuen kalitatea eta kopurua.

Emaitzen transferentziaren kalitatea.- Patenteak eta jabetza intelektualen erregistroa, ezagutzaren transferentzia produkzio sektorerara, etab.

Irakasleen mugikortasuna.- Egonaldiak ikerketa zentroetan, etab.

Beste merezimendu batzuk:

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketaaldiak.

Irakaskuntzako edo lan arloko jarduerak:

Irakaskuntza.- Noiztik noiz artekoa, zenbat motatakoa, zelako trinkotasunekoa, ardua, zikloak, unibertsitatean emandako irakaskuntza mota, zuzendutako doktorego tesiak, eta abar.

Irakaskuntzaren kalitatea. Jasotako aldeko ebaluazioak, sortutako irakasmateriala, irakaskuntzari lotutako argitalpenak, hezkuntza berrikuntzako proiektuak, etab.

Irakaskuntzako prestakuntzaren kalitatea.- Unibertsitateko irakasleentzako prestakuntza kongresuetan parte hartu izana, hizlari edo entzule gisa, irakasguneetan egindako egonaldiak, eta abar.

Enpresetan, erakundeetan, ikerketako erakunde publikoetan edo ospitaletan izandako jardueraren profesionalen kalitatea eta jardueraren horietan emandako denbora (irakaskuntza eta ikerketaren arlokoak ez diren jarduerak).- Arduraldia, jardueraren ebaluazio positiboa, eta abar.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako irakaskuntzaaldiak.

Lehiaketako 2. eta 3. probetan, eztabaidan azalpenak emateko argitasuna, eta irakaskuntza programaren edo ikerketa proiektuaren originaltasuna balioetsiko dira.